

2. SEGMENTAZIOA

Gure enpresak argi du nortzuk izango diren gure bezeroak, izan ere, ez dugu gure burua profil zehatz batera itxi ezta estereotipo zehatz batera lotu nahi. Horregatik, gure zerbitzua, janaria egunero eskuratzeko, ordaintzeko edo sukaldatzeko arazoak dituen pertsonen eskeintza diegu.

Batetik, guraso batzuek lan handia egin behar dute beraien seme alabak aurrera eramateko eta guk horretan lagundu nahi diegu, behintzat astean egun batzuetan janari beroa eduki dezaten, diru edo denbora gehiago galdu ez dezaten. Bestetik, Gipuzkoan 38.000 pertsona bizi dira pobrezia egoeran eta horietako batzuk kalean bizi dira, beraien janari beroa merezi dute baitaere. Azkenik, desgaitasunen bat duten pertsonak lagundu nahi ditugu; badakigu askotan gobernuak ez dituela behar bezalako baliabideak eskaintzen, ondorioz, guk horren aurrean altxa nahi dugu.

Gure ustez segmentu hauek hainbat kezka edukiko dituzte. Hasteko, noiz eta nun banatuko dugu janaria? Gure intentzioa lehenengo hilabeteetan bakarrik astean bi edo hiru egunetan banatzea da, izan ere, gure enpresa hasieratik egonkorra izatea nahi dugu, beti ere etekinak izateko tarte bat edukiz. Zein egun izango diren oraindik erabakitzeke dago bezeroekin harremanetan jarri nahi garelako beraien iritzia entzuteko. Bigarren galderari erreferentzia eginez, gure proposamena lehenik Antiguu auzoan banaketak egiten hastea da eta ondoren beste auzoetara zabaltzea, baina beti postuak eskolen ondoan jarriko ditugu, horrela ikasleentzat eskuragarriagoa izango da.

Bigarrenik, zein kantidade izango dute plateran egunero? Egia da egunero menua eta kantidadea pixkat bat aldatuko dela, soberakinen arabera, baina gutxieneko batzuk ezarriko ditugu: lehenengo platera, bigarren platera eta ogi zati bat (postrea ez da beti egongo). Zein menu izango dute? Menuaren berri jakitea oso erraza izango da, bakarrik eskolako ausolan menuan sartu beharko dira eta menua irakurri. Gure asmoa gutxinaka menu propioa osatzea da, baina hau bakarrik etekinak handitzean lortuko dugu, horregatik dira hain garrantzitsuak diru laguntzak eta kolaborazioak.

Azkenik, hasieran behintza ez diogu produktua masa merkatuari eskainiko, soberakin nahikorik ez ditugulako izango. Gainera, ez ditugu Ausolan enpresako langileen lanorduak aldatu nahi, hori horrela izanda, langile gehiago lortu arte, astean zehar 150 plater inguruan aterata pozik egongo gara. Beranduago pentsatuko dugu zenbateko hedapena lortu dezakegun, baina oraingoz pozik gaude zenbaki hauekin.